

Goi-teknologiaren sektoreak 4.900 enpresa bildu ditu eta 93.500 pertsona hartu ditu Euskal AEn 2018an

Sektore horrek I+Gko barne-gastu osoaren % 70,5 egikaritu du, eta I+G egin zuten enpresen % 44,4 izan da

Eustatek landutako datuen arabera, 2018an goi eta erdi-goi teknologiaren sektoreak ekonomiaren balio erantsi gordin osoaren % 8,8 sortu zuen. Oinarri teknologiko sendoa duten eta ezagutzak bizkor berritzen dituzten jarduerak biltzen dituen sektore horrek 93.458 lanpostu sortu zituen, guztien % 8,6. Jarduera horiek 4.881 enpresatan egin ziren, 21.336,8 milioi euro fakturatu.

Goi-teknologia sektorearen magnitude nagusiak, lurralde eta jarduera sektoreen arabera, 2018

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negozio kopurua (1)	Balio erantsia (1)
Goi-teknologiaren sektorea	4.881	93.458	21.336.764,4	6.777.986,9
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	685	16.918	6.271.989,4	1.170.260,9
Bizkaia	2.567	35.710	6.758.152,4	2.709.922,4
Gipuzkoa	1.760	40.830	8.306.622,6	2.897.803,7
Jarduera-adarra				
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	1.540	65.635	18.103.927,0	4.725.928,0
Goi-teknologia	174	10.106	2.430.374,0	727.450,0
Goi-ertain teknologia	1.366	55.529	15.673.553,0	3.998.478,0
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	3.341	27.823	3.232.837,4	2.052.058,9

(1) Milioika eurotan

Iturria: Eustat. Goi teknologiko adierazleen panela

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gora egin dute enpresen kopuruak (92 gehiago) eta landunen kopuruak (3.748 gehiago). Hala, 2018an jarduera horretan diharduen enpresa bakoitzeko 19,1 landun izan dira batez beste, 2017an baino gehiago (18,7). Bestalde, negozio-zifra % 5,1 igo zen, eta balio erantsia % 4,0.

2018an sektore horrek I+Gko barne-gastu osoaren % 70,5 egikaritu du, eta I+G egin zuten enpresen % 44,4 izan da

Goi-teknologiaren sektorean (aurrerantzean, LTZ) enpresen % 12,8k I+Gko jarduerak egiten dituzte, eta ehuneko hori askoz handiagoa da sektore guztietarako dena baino (% 1,0). Gainera, sektore horrek, zeinek enpresa guztien % 3,2 hartzen dituen, enpresa-sektorean I+G egiten dutenen % 44,4 biltzen ditu, eta, 761,3 milioi euroekin, enpresa-sektoreak I+Gn egindako barne-gastu osoaren % 70,5 egikaritzen du.

Sektore horretan I+Gra bideratutako langileei dagokienez, 2018an 9.484 enplegatu izan ziren "dedikazio osoko baliokidetzan", enpresa-sektoreak I+Gra bideratzen dituen langileen % 69,3, edo % 49,2 sektore guztiek jarduera horietara bideratzen dituztenekin


alderatuz gero. Emakumeak, 3.027, % 31,9 ziren. Langile guztietatik 6.186 ikertzaileen kategoriakoak ziren; 1.966 emakumeak ziren, % 31,8, eta 2017an baino 118 gehiago dira.

	Establezimendu kopurua	Langileak			Ikertzaileak		
		Guztira	Emakumeak	Emakumeak %	Guztira	Emakumeak	Emakumeak %
I+G Guztira	1.474	19.274	6.924	35,9	13.165	4.664	35,4
Enpresa sektorea I+G	1.409	13.678	4.108	30,0	8.752	2.624	30,0
Goi eta goi-ertain teknologia I+G sektorea	625	9.484	3.027	31,9	6.186	1.966	31,8
Lurralde Historikoa							
Araba/Álava	87	913	308	33,8	588	192	32,7
Bizkaia	282	5.180	1.546	29,8	3.336	1.006	30,2
Gipuzkoa	256	3.391	1.173	34,6	2.262	768	33,9
Goi eta goi-ertain teknologiaren manufaktura-industria	321	3.544	811	22,9	1.981	469	23,7
Goi teknologia	59	876	256	29,2	588	173	29,5
Goi-ertain teknologia	262	2.668	554	20,8	1.394	296	21,2
Goi teknologia edo teknologia puntako zerbitzuak (p)	304	5.939	2.217	37,3	4.205	1.497	35,6

D.O.B.= Dedikazio Osoko Baliokidetzak
 Iturria: Eustat. Goi teknologiaren sektorearen estatistika

Berrikuntzari dagokionez, I+Gn gertatzen den bezala, alde nabarmenak daude sektore guztien eta goi eta erdi-goi teknologiaren sektoreen artean. Halatan, 2018an sektoreko establezimenduen % 44,3 berritzaileak izan ziren, sektore guztien % 17,3ren aldean. 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan ehuneko horiek % 62,8ra iritsi ziren lehen kasuan, eta % 30,1era bigarreanean.

Euskal AEko I+G+b goi teknologiako enpresetan eta sektore guztietan (%). 2018



Iturria: Eustat. Goi teknologiaren sektorearen estatistika

2018an goi eta erdi-goi teknologiarren establezimenduek 1.382 milioi euro bideratu zituzten berrikuntza-jardueretara, guztizko gastuaren % 48,9. Gastu horretatik 1.292 milioi 10 langile edo gehiagoko establezimenduei dagozkie, hau da, tamaina horretako enpresek jarduera horretan gastatutako guztizkoaren % 54,4.

I+G+b-rako baliabideen proportzioa eta sektore horretako merkataritza elektronikoa sektore guztien batezbestekoa baino handiagoak izan ziren

Agerikoa da, halaber, ezen goi eta erdi-goi teknologiarren sektoreak gainerako sektoreek baino baliabide-proportzio handiagoa bideratu zuela I+G+b-ra, intentsitate-ratioak ikusita "berrikuntzan" eta "barneko I+Gn"; hau da, sektore horrek gastura bideratzen dituen zifrak, bai berrikuntzan, bai I+Gn, negozio-zifraren aldean. Zehazki, *berrikuntzaren intentsitatea* % 5,74koa da sektore horretan, eta % 1,58koa sektore ekonomikoaren guztizkoan. Barneko I+Gren kasuan ratioa % 3,29koa da sektorean eta % 0,80koa guztizkoan.

Goi-teknologia sektoreko berrikuntzako eta barne I+G intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera (%). 2018

	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
Sektore guztira	1,58	0,80	2,06	1,16
Goi-teknologiarren sektorea	5,74	3,29	5,77	3,36
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	0,00	0,00	0,00	0,00
Bizkaia	3,56	1,16	3,62	1,21
Bizkaia	7,29	4,00	7,53	4,17
Gipuzkoa	5,73	3,99	5,61	4,03
Jarduera-adarra	0,00	0,00	0,00	0,00
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	3,73	1,60	3,83	1,64
Goi-teknologia	8,86	3,16	8,91	3,22
Goi-ertain teknologia	2,83	1,33	2,92	1,36
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	14,03	10,22	15,16	11,67


(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

Iturria: Eustat. Goi teknologiarren adierazleen panela

Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien (IKT) erabilera oso hedatua dago sektore horretako enpresen artean, eta merkataritza elektronikoa sektoreen guztizkoan baino garatuago dago. 2018an sektore horretako establezimenduen % 45,7k erosketak elektronikoa egin zituzten, eta % 24,1ek, berriz, sektoreen guztizkoan. Urte berean, sektore teknologikoko salmenten % 12,7 elektronikoa izan ziren; sektore guztietan, % 6,9. Horren ondorioz, "merkataritza elektronikotzat" hartzen duguna goi eta erdi-goi teknologiarren sektoreko establezimenduen % 48,4tan gertatzen da, eta % 26,3tan da, aldez, establezimendu guztietarako.

IKT erabilpena Euskal AEn (%). 2018



Iturria: Eustat. Goi teknologiaren sektorearen estatistika

Bestalde, sektore horrek ondasunen kanpo-merkataritzan duen eragina ez da bereziki esanguratsua. Esportazioak 854,2 milioi euro izan ziren, guztizko 25.788,3 milioi euroren aldean; inportazioak 696,3 milioi izan ziren, inportaturiko guztizko 20.485,1 milioietatik. Kopuru horiek espotazio eta inportazio guztien % 3,3 eta % 3,4 dira, hurrenez hurren.

Truke horietan ohikoenak diren produktuen artean eta espotazioetarako, honako hauek dira nabarmentzen: "Makineria eta tresneria mekanikoa" (% 41,9), "Aireontziak eta espaziontziak egitea" (% 16,9) eta "Material elektronikoa, irradi, telebista eta komunikazioetako ekipa eta aparatuak" (% 15,1). Inportazioetan nabarmentzekoak dira "Material elektronikoa, irradi, telebista eta komunikazioetako ekipa eta aparatuak" (% 29,4), "Aireontziak eta espaziontziak egitea" (% 21,2) eta "Lanabes zientifikoak" (% 17,8).

LTZ sektorearen negozio-zifra % 21,9 igo da 2010etik

Denbora-ikuspegi zabalago batetik, LTZ sektorearen negozio-zifra 16.800 milioi eurotik gorakoa da 2010etik, 2017an 20.000 milioiko landa gaindituta, eta 2018an 21.337 milioiko errekorra iritsi da, hau da, 3.825 milioi euro gehiago 2010aren aldean, % 21,9 gehiago.

Aldi berean, LTZ enpresetako enplegatuen guztizko kopurua 1.944 pertsonatan handitu da, eta 2011tik 90.000 langiletik behera egon da; hala ere, azterketa honen azken urtean guztizko kopurua 93.458 enplegatuta iritsi da, 2010ean erregistratutakoa baino % 2,1 gehiago.

Goi-teknologia sektorearen magnitude nagusiak. 2010-2018

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negoio kopurua (1)	Balio erantsia (1)
2018	4.881	93.458	21.336.764	6.777.987
2017	4.789	89.710	20.306.692	6.516.869
2016	4.852	87.727	19.198.452	6.251.960
2015	4.787	85.100	17.696.422	5.989.997
2014	4.745	84.419	16.872.644	5.746.375
2013	4.718	86.571	17.085.535	5.806.417
2012	4.646	87.746	17.847.872	6.134.652
2011	4.742	89.726	18.748.825	6.373.258
2010	4.830	91.514	17.511.934	6.106.721

(1) Milioika eurotan

Iturria: Eustat. Goi teknologiko adierazleen panela

Era berean, azken 9 urteetan Goi eta Erdi-goi teknologiaren enpresen kopurua 4.600en atalasearen gainetik mantendu da, Euskadiko enpresa guztien % 3 inguruko ehunekoekin, 2010ean % 2,9 izatetik 2018an % 3,2 izatera igarota. Ikusten denez, portzentajezko hazkunde txiki bat gertatu da, 2010ean baino 51 LTZ enpresa gehiago baitaude.

Azkenik, balio erantsi gordinak 671 milioiko igoera izan du 2010. urtearekin alderatuta. Urte horretatik aurrera 5.700 milioitik gora mantendu da, eta 2018an beste errekor bat lortu du, 6.778 milioi eurokoa (2010ean baino % 11 gehiago).

Ohar metodologikoa:

Goi-teknologian (LTZ) sartzen diren sektoreak dira horiek zeinek, duten konplexutasun-mailagatik, ikerkuntzan etengabeko ahalegina eta oinarri teknologiko sendoa behar duten. [Web Eustat. Ficha metodológica: Panel indicadores alta tecnología](#) estekan daude sektoreko jarduerak, 2009 EJSNren arabera.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62